

20 URIBURU EUSKALDUNAK FUNDATUAK AMERIKAN

Zenon Uriguen
pasiotarra



Ekintza oroigarriak. Euskal gizakiaren gogoak ekintza aundienetara doanean, norik eten bere asmoaren bideak. Gurea bezelako jentea ez da edonun aurkitzen. Euskalduna da benetan gure luraren emaitzik onena, sendo aritzen dalako, kementsua dalako, arpegia emoteko daukan eragaitik eta lanerako daukan gaitasunagaitik. Bai euskaldunak Ameriketara, baso eta zelaietan, uriburu ederzabalak eraiki ebezan. Idazlan onetan jarriko doguz gizon egille eta eragille onen izenak Fernando de la Quadra Salcedok egindako historiari artuta.

URIBURUEN EGILLEAK

- Aipagarria da Juan de Garai, Orduñatarra, 1580 urtean fundatu eban Buenos Aires uriburua.
- Bruno Mauricio de Zabala Kortazar, Durangotarra, Montevideo-ren egillea 1724 urtean.
- Domingo de Irala Bergara-tarrak fundatu eban La Asunción, gaur egun Paraguaian uriburu dana, 1541 urtean.
- Juan Perez de Berrio Elorriotarrak fundatu zituan Mexikon, Guaxaka edo Antequera 1529 urtean.
- Martin Ruiz de Ganboa. Alabatarrak fundaturik, Castro de la nueva Galicia, Txile, 1567an.
- Mexikon fundatu eban Francisko de Ibarrak, Oriotarra, Llerena 1554an.
- Andres Lopez de Galarza, Leniz aldekoa, fundaturik Ibague-Kolonia 1551 urtean.
- Juan de Salinas Loiola fundatu eban Loiola uriburua edo Kunbiana, Quito-ko audiencia izan zana, eta geroago Ecuador, 1550an.
- Francisko Ospina, Ayala-tarra, Colombian fundatu eban Nuestra Señora de los Remedios uriburua 1563 urtean.
- Colombia, Nueva Granada, Pedro de Urzuak fundatu eban Pamplona uriburua 1554an.
- Orduñako Martin Hurtado de Arbieta fundatu eban San Francisco de la Victoria, Perú, 1572an.
- Bartolomé de Alabak fundatu eban Colombia-an La Ramada uria 1556an.
- Francisko de Ibarrak, ganeraz, fundatu ebazan beste uri bi: San Sebastian, 1568, y San Juan de Cinaloa 1560 an, biak Mexikon.
- Francisko de Agirrek fundaturik Santa Maria de la Talavera, Tukuman aldean.
- Juan de Landetxok, fundatu eban Colombian La Trinidad 1560an.
- Azkenik Loiola-ko Iñazio ren senitarteko batek, Martin Garcia de Loiolak fundatu eban Santa Cruz de Loiola uriburua, Reino de Chile. Kapitan eta Gobernaria izanik Araukanoak il eben.

“Boga, boga mariñela-joan bear dogu urrutira” Amerika lurraldeak eta ango aberaztasunak ezagutu ondoren arako joera iñork kendu eziñeko zorria da. Urrea eta zoruna ez dira ain errez eskuratu ta kolkoratzen. Buruauste ta nekeak, izerdi eta ekiñaldi gogorrek bizi bearko dozuz.”Nai ba dozu saria, nekea eta izerdia” Euskaldunak zabalduko ditu bere besoak eta an gelditu diranak, arrigarria da. Amerikaren alde jokatzeko, euren erria ta eskubideak zaindu ta sendotzeko ekin ta ekin diardue. Ara emen euren ekimenak ta izenak. XVII-XVIII gizaldietan Inglesak ta Holandesak Ego Amerika menderatzeko alegin gogorrek eginik Euskaldun talde batzuk aurrez aurre, eta ekinaren ekinez, garaitu ta uxatuko ditu. Euskal taldeen buru onexek dira: Blas de Lezo, Mateo de la Haya, Eslava, Munibe, Cengotita Bengoa, Zabala, Alzaivar, Ganboa. Simon Bolibar euskaldun guztien alde eta Amerikaren askatasunean jo ta ke jokatu ebana.

Fray Juan de Zumarraga Gotzaiñak, Durangotarra, Fede barriaren eta gizartearen alde ikastetxea, gaxoentzako ospitalea, eta Unibersitate eder bat eraiki eban. Bere ekimen goragarria da indioen askatasuna lortu eta agintarien aurrean legezko egin. Guadalupeko Ama Birjiñaren Santutegia berari zor jako. Kristau fedea Andra Mariaren maitasunez eta zeruko graziarekin millaka biotzetan loratu ta indartu zan. Aldi onetan mixiolari asko joan ziran ara Kristoren ebanjelioa zabaltzera.

“Lotsa bako-entzat sakua lepoan; irabazleentzat txapela buruan”.



AMERIKARA NOA

Amerikara noa
nere borondatez
Emen baño obeto
izateko ustez
Asperturikan nago
emengo izatez
Agur aita ta ama
ondo bizi bitez.

Leendik seme bat
badet Amerikan
Amar bat urte dira
jun zala emendikan
Ikusten badek seme
bere aztarnikan
Esaiok bizi dala
aita oraindikan.

Kafia artutzen det
egunian bi aldiz
Baita ibilli ere
nai añian zaldiz
Purua erre eta
osasuna berriz
Ai ze bizimodua
Donostian balitz